

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko ekainaren 30eko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Foru dekretua:**

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 22/2020 Foru Dekretua, ekainaren 30ekoa. Onestea mahasti aseguruak kontratatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza horien 2020ko deialdia.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 279/2020 Erabakia, ekainaren 30ekoa. Onestea 5+11 Fundazioari dirulaguntza ematea 2020an Arabako Lurralde Historikoan prestakuntza, elkartasun eta gizarte kohesioko programak antolatzeko.

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 280/2020 Erabakia, ekainaren 30ekoa. Onespena ematea Araban ekimenak garatzeko eta enpresa berriak sortzeko laguntza lerroaren esleipenari (Ekin Araban 2020).

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 281/2020 Erabakia, ekainaren 30ekoa. Behin betiko onespena ematea Añanako udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 282/2020 Erabakia, ekainaren 30ekoa. Behin betiko onespena ematea Eskuernagako udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketari.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 283/2020 Erabakia, ekainaren 30ekoa. Onespena ematea Ozetako Kontzejuko batzorde kudeatzaileko kideen izendapenari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 284/2020 Erabakia, ekainaren 30ekoa. Onespena ematea norgehiagoka aske bidez dirulaguntzak emateko 2020ko deialdiko bigarren esleipenari. Dirulaguntza horien xedea da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzea beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta larrialdi obrei aurre egiten.

Foru Gobernu Kontseiluaren 285/2020 Erabakia, ekainaren 30ekoa. Onespena ematea baimentzeari 295.833,33 euroko epe luzerako zorpetze eragiketaren birfinantzaketa, Gasteizko Hiri Garraioak (TUVISA) udal sozietate publikoak eskatua.

Foru Gobernu Kontseiluaren 286/2020 Erabakia, ekainaren 30ekoa. Epea luzatzea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomorako landa autoponpa astuneko ibilgailu bat erosteko kontratua gauzatzeko.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 287/2020 Erabakia, ekainaren 30ekoa. Onespena ematea kontratu hau aldatzeari: "Instalazio elektrikoak mantentzeko, bide segurtasuneko datuak ustiatu eta Errepideak Kontrolatzeko Zentroa kudeatzeko, errepidea ustiatzeko elementuak hobetu eta ordeztzeko jardunak egiteko, eta foru sareko errepideetako neurketa egitasmoaren 2017-2019 plangintza egin eta burutzeko zerbitzua"

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 288/2020 Erabakia, ekainaren 30ekoa. Onespena ematea Delikako Ibilbide Berdearen egokitze lanen bukaeraren ziurtagiriari.